

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

26/2025 Foru Dekretua, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea mahastietan sexu nahastetako teknikak erabiliz mahatsaren sitsari (*Lobesia Botrana*) aurka egiteko estrategia Araban garatzeko proiektuak sustatzeko laguntza arautzen duten oinarriei, baita 2025erako deialdiari ere

Aspaldi erakutsi zen sexu nahasketako tekniken bidez mahats mordoaren sitsari aurka egiteko metodoa eraginkorra dela, bai eta kausa-ondorio harremana dagoela ere mahastietan mahats mordoaren sitsa garatzearen eta mahatsaren heltze aldian botrytisa agertzearen artean. Horrek eragin negatibo zuzena dauka fruituaren kalitatean eta, beraz, ardoen kalitatean. Sitsa kontrolatzeko sistema hori aspaldi ezarri zen mahastizaintza eta ardogintzako beste zona batzuetan, bai eta Errioxa jatorri deituraren barruko zona jakin batzuetan ere, eta emaitza bikainak eman ditu. Hala ere, gure zonan oraindik ez dago behar bezainbeste ezarrita eta, horregatik, Arabako Foru Aldundiak interes handia dauka Arabako ardogintza eskualdeetan teknika horren erabilera sustatzeko.

Horregatik, otsailaren 1eko 24/2021 Foru Aginduaren bidez, onespena eman zitzaien sexu nahasketako teknikak erabiliz Arabako Errioxan mahats mordoaren sitsari (*Lobesia Botrana*) aurka egiteko estrategia garatuko duen partaide talde bat sortzeko interesa agertzeko deialdi publikoaren oinarriei. Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 14ko 45/2021 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaien mahastietan sexu nahasketako teknikak erabiliz mahatsaren sitsari (*Lobesia Botrana*) aurka egiteko estrategia Araban garatzeko proiektuak sustatzeko laguntzaren oinarri arautzaileei eta 2021erako deialdiari. Ondoren, aldaketa eta deialdi hauek onetsi dira, 21/2022 Foru Dekretuaren, 18/2023 Foru Dekretuaren eta 123/2024 Foru Aginduaren bidez.

Kudeaketako lau urte hauetan lortutako esperientziaren ostean, pentsatuta dagoen foru dekretuaren xedea eta helburua da laguntzaren oinarri arautzaile berri batzuk ezartzea, laguntzaren garapena bultzatzen jarraitzeko eta lurraldearen eta ustiategien berezitasun espezifikoetara egokitutako esparru bat bultzatzeko, teknikaren eragin zona zabaltzen lagundu ahal izateko, jarduketa osoari mesede eginez.

Aldaketa hauek egingo dira:

1. Kendu egingo da proiektuan onar daitezkeen mahastizaintza ustiategien kopuruaren irizpidea.
2. 4.2 artikuluan ezarritako puntuazio irizpideak eta puntuazioak aldatuko dira.
3. Puntuazioak eta finantzaketa ehunekoak aldatu eta igo egingo dira.
4. 4.4 artikuluan, puntuazioa lortzeko aukera jasoko da, nahiz eta proiektu bakoitzeko mahastizaintza ustiategi onargarri bakarra izan.
5. 3.1, 4.4 eta 5.3 artikuluetan puffer hitzaren ordeaz aerosol generikoa jarriko da.
6. Justaposizio eta parte hartzaile kontzeptuak kenduko dira, 3.5, 3.6 eta 4.5 artikulua desagertuko dira eta 4.4 artikulua aldatuko da.
7. 5.3 artikulua aldatuko da, eskaeren edukiari dagokionez.

Bestetik, kontuan hartuta Arabako Foru Aldundiaren 2025eko gastuen aurrekontuan laguntza horren deialdia egiteko kreditua dagoela, egokia da onespena ematea mahastietan sexu nahasketako teknikak erabiliz mahats mordoaren sitsari (*Lobesia Botrana*) aurka egiteko estrategia Araban garatzeko proiektuak sustatzeko 2025erako laguntzarako deialdiari.

Foru dekretu hau izapidetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak jasotako arautze onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan ere jasota baitaude. Kontuan hartu dira Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planaren (2022-2026) inspirazio iturri diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuaren edukia eta Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legea ere. Halaber, kontuan hartu dira Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Zerbitzuak horri buruz egindako txostenean jasotako oharra. Era berean, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da; izan ere, behar bezala justifikatuta dago bai antolamendu juridikoan sartzea, bai ematen duen organoa gaitzea. Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu, entzunaldiko eta jendaurreko izapideak bete direlako legez ezarritako epeetan. Azkenik, eraginkortasun printzipioari dagokionez, proposatutako arautzeak, duen izaera dela eta, ez die herritarrei oro har administrazio karga osagarririk edo alferrikakorik eragiten, ezta baliabide publikoen kontsumo handiagorik ere. Sinpletasunaren eta ulergarritasunaren printzipioei dagokionez, proposatutako testua modu egituratuan eta hizkera argia eta ulergarria erabiliz idatzi da.

Nahitaezko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Onespina ematea mahatsaren sitsari (*Lobesia Botrana*) aurka egiteko estrategia Araban garatzeko proiektuak sustatzeko laguntza arautzen duten oinarriei, eranskinaren arabera.

Bigarrena.- 2025erako laguntza deialdia onestea, mahastietan sexu nahasketako teknikak erabiliz Araban mahats mordoaren sitsari (*Lobesia Botrana*) aurka egiteko estrategia garatzeko proiektuak sustatzeko 2025erako. Hona hemen xehetasunak:

— Eskaerak aurkezteko epea eta tokia: 2025eko uztailaren 15etik abuztuaren 10era bitarteko epea, biak barne.

Eskaerak toki hauetan aurkeztu behar dira:

— Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.

— Foru Ogasunak Vitoria-Gasteizen, Laudion eta Guardian dituen bulegoetako erregistroa.

— Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetatik edozein.

Edonola ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek behartuta daude telematikoki aurkeztera egoitza elektronikoaren bidez (<https://egoitza.araba.eus/-/tr-registro-electronico-comun>), Nekazaritza Sailaren aplikazioaren bidez <https://www.araba.eus/MahastiAraba/> edo beste administrazio publiko batzuen erregistro elektronikoetan: pertsona juridikoak; nortasun juridikorik gabeko entitateak; diharduten jarduera profesionalean jarduteko elkargo bateko kide izan behar dutenak, jarduera profesional hori dela-eta egin behar dituzten izapide eta jarduketetarako; eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak. Azken kasu horretan, laguntza eskaera bitarteko elektronikoaren bidez izapidetu ahal izango da, baimendu gisa, egoitza elektronikoan zehazten denaren arabera (<https://egoitza.araba.eus/es/sede-electronica/autorizaciones>).

— Kreditu erreserba: 27.976,88 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2025eko ekitaldirako gastu aurrekontuko 40104. G/419401/77000418 "Sitsaren Kontrol Biologikoko Laguntza Plana" partidaren kontura.

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahalko da, hasieran erreserbatutakoaren gehieneko zenbateko berean, baita aurrekontu partidan edozein zioengatik gerta daitekeen kredituaren zenbatekoan, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena.- Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Xedapen indargabetzailea. Indarrik gabe uztea Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 14ko 45/2021 Foru Dekretua, zeinaren bidez onetsi baitziren mahatsaren sitsaren (*Lobesia Botrana*) aurkako estrategia Araban garatzeko proiektuak sustatzeko laguntzaren oinarri arautzaileak. Dekretu hori 21/2022 Foru Dekretuaren eta 18/2023 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen.

Azken xedapena. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 1a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA

ERANSKINA

1. artikulua. Xedea eta definizioak

1.1. Foru Dekretu honen xedea da Arabako Lurralde Historikoan laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzea Arabako Errioxan eta Aiaran mahatsaren sitsa kontrolatzeko sexu nahasketako tekniken erabilera garatzea helburu duten proiektuak sustatzeko.

1.2. Laguntza araubide honek ondokoak bultzatu eta sustatzeko helburua du:

a) Izurriak kontrolatzeko metodo eraginkorrak eta ingurumen inpaktu txikiagokoak erabiltzea, ohiko tratamendu kimikoen alternatiba moduan, haien erabilera gero eta murriztuago baitago ingurunean dituzten ondorio kaltegarriengatik.

b) Kalitateko ekoizpena mantentzearen alde egitea.

c) Agrobiodibertsitatea zaintzea Arabako Errioxa eta Arabako Txakolina deituetako mahastietan.

d) Landa eta nekazaritza paisaia zaintzea eta dibertsifikatzea, bereziki Arabako Errioxako mahastietako paisaia babestua.

1.3. Laguntza hauek emateko prozedura norgehiagoka izango da.

2. artikulua. Onuradunak

Honako baldintza orokor hauek eta hurrengo artikuluko neurriari buruzko baldintza espezifikoak betetzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak izan daitezke laguntzen onuradunak:

2.1. Pertsona fisikoak:

a) Arabako Lurralde Historikoko Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroan inskribatutako nekazaritzako ustiategi baten titularra izatea.

b) Araban dauden mahasti guztiak Arabako Lurralde Historikoko Mahastien Erregistroan inskribatuta edukitzea.

c) Ez edukitzea mahasti ez-emankorrik edo arauz kanpikorik.

d) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

e) Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak izapidetutako zehapen edo itzulketa prozedura batean ez egotea.

f) Administrazio zehapenik edo zehapen penalik jaso ez izana sexua dela-eta diskriminazioa egin izanagatik, eta debeku horrekin zigortuta ez egotea otsailaren 18ko 4/2005 Legearen indarrrez (Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea).

g) Eskaera egitea dekretu honetan ezarritakoaren arabera.

2.2. Pertsona juridikoak edo ustiategi elkartuak:

Sozietate zibilen, titulartasun partekatuen eta ondasun erkidegoen gisako ustiategi elkartuak edo bestelako pertsona juridikoak izanez gero:

a) Eskatzaileak bete beharko ditu artikuluko 2.1 apartatuan jasotzen diren baldintzak.

b) Nortasun juridikorik ez duten sozietateek ezin izango dituzte laguntza horiek jaso, salbu eta:

- Jaraunspen erkidegoek, gutxienez sei urterako indibisio ituna baldin badago haien gainean.

- Eskritura publiko bihurtutako agiriaren bidez osatutako sozietate zibilek.

- Estatutuak jasotzen dituen agiri pribatu batean eraturako ondasun erkidegoek, Ondare Eskualdaketen gaineko Zergaren Zerbitzuak behar bezala izapidetuta.

- Titulartasun partekatuaren itxura daukaten nekazaritza ustiategiei, bat etorritik urriaren 4ko 35/2011 Legean xedatutakoarekin.

2.3. Hirugarren batzuei tratamendua aplikatzen dien nekazaritza ustiatagia ere izan daiteke laguntza honen onuraduna, baldin eta Transakzioen eta Eragiketen Erregistro Elektronikoa (RETO) inskribatuta badago, eta teknika aplikatzearen kostua bere gain hartu behar du, proiektuaren xede diren mahastiak ustiatagian ez badaude ere. Aurreko 2.1 eta 2.2 apartatueta ezarritako baldintzak bete beharko ditu, dagokionaren arabera, salbu eta 2.1 b eta 2.1 c apartatueta ezarritakoak.

2.4. Baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar den informazioa kasuan kasuko erakundeetatik lortuko da, eta lehentasuna izango dute Arabako Lurralde Historikoko Ustiatagien Erregistroak eta haren Mahastien Erregistroak; aldaketak egin behar badira, ezinbestekoa izango da aldeztu aurretik aldatzea, eta titularraren erantzukizuna izango da hori.

3. artikulua. "Sexu nahasketako tekniken bidez mahatsaren sitsari aurka egiteko estrategia garatzeko proiektuen sustapena" delako neurrirako baldintzak eta berariazko konpromisoak

3.1. Aurreko artikuluan ezarritakoaz gainera, onuradunak ondoko baldintza eta konpromiso hauek ere bete behar ditu:

- Eskaeran jarritako lurzati mahastidunak laborantza egoera onetan izatea.

- Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuari erabili den produktua (aerosolak edo difusoreak) sorotik kentzeko asmoaren berri ematea, laguntzaren ebazpenaren jakinarazpena jaso aurretik. Bestela, ulertuko da produktuak irauten duela eskaeran adierazitako lurzatieta. Produktua sorotetan egote hori, laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak betetzearen frogarritzat jotzen da. Produktua ez egotea, berriz, baldintza ez betetzea dela ulertu ahal izango da eta laguntza ukatzea ekar dezake ondorioz.

- Ihintzatzeko teknika aplikatzea aukeratuz gero, tratamendu hori non eta noiz egin den erregistratuta duen ustiategi koadernoan aurkeztea.

- Hirugarrenei aplikatzen zaien kasuan: tratamenduen koadernoan aurkeztea.

3.2. Eskaerak banakakoak izango dira. Eskaera horiek eta 5.3. artikuluan zehaztutako beharrezko dokumentazioa banaka edo taldeka aurkeztu ahal izango dira, proiektu kudeatzaile baten bidez. Proiektu kudeatzaile hori pertsona fisiko edo juridiko bat edo nortasun juridikorik gabeko entitate bat izango da. Aurkezleak ez dauka zertan izan nahitaez parte hartzen duten nekazaritza ustiatagietako bat; baina, haiek ordezkatzuz, solaskide izango da Nekazaritza Sailarekin.

3.3. Eskaera aurkeztearekin batera, baimena ematen da kudeatzailea eta parte hartzen duten nekazaritza ustiatagiak otsailaren 1eko 24/2021 Foru Aginduan sortutako zerrendan sartzeko. Foru Agindu horren bidez, Arabako Errioxan mahats mordoaren sitsari (*Lobesia Botrana*) aurre egiteko estrategia bat garatzeko parte hartzaileen talde bat ezartzeko interesa adierazteko deialdi publiko baten oinarriak onetsi ziren.

3.4. Eskaerak barematzeko, Arabako Lurralde Historikotik kanpo dauden lurzatiak sartu ahal izango dira proiektuan; baina, Araban dauden eta ustiatagi eskatzailean inskribatuta dauden finketan egindako jarduketak baino ezin izango dira diruz lagundu.

4. artikulua. Laguntzen kalkulua eta zenbatekoa

4.1. Eskatzaileen, mahastizaintzako azalera onargarrien eta sartuta dauden proiektuak lortutako puntuen zerrenda egingo da, ondoko puntuan zehaztutakoaren arabera.

4.2. Kalkulua.

Laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, elkarlaneko proiektua balioetsiko da ondoko parametro tekniko hauen arabera, eta kontuan edukiz mahatsaren sitsaren aurkako sexu nahasketako teknikaren ezaugarriak eta haren eraginkortasun handiagoa edo txikiagoa:

- Proiektuaren barruan dauden hektareen kopurua:

1 eta 4 artean	10 puntu
4 baino gehiago eta 10 arte	20 puntu
10 baino gehiago	30 puntu

- Proiektuan jasotako zonaren trinkotasuna:

Trinkotasuna koefiziente bat da, teknika honen erabilera eraginkorra izateko faktore garrantzitsuenetako bat neurtzen duena: alegia, lurzatiak elkarren mugakide izatea, bere artean ahalik eta hutsarte txikienak utzita, eta teknika hau erabiltzen ez duten lurzatiekiko mugak ahalik eta luzera txikiena izatea. Trinkotasun hori bi hauen arteko zatidura da: eragindako eta tratamenduan jarritako lurzatiaren azalera eta lurzati guztiek osatzen duten entitatea mugatzeko gutxieneko geometriak osatzen duen poligono konbexuaren azalera.

0,2 arte	10 puntu
0,2 baino gehiago eta 0,6 arte	20 puntu
0,6 baino gehiago eta 1 arte	30 puntu

4.3. Zenbatekoa: Proiektuan diruz lagundu daitekeen gehieneko zenbatekoa ondoko taulan adierazitako ehunekoa izango da, tratamendua emateko erabilitako produktuen kostuarena, BEZik gabe, aurretik azaldutako irizpideekin lortutako puntuen arabera.

30 puntu arte	ehuneko 60
40 puntu arte	ehuneko 75
40 puntu baino gehiago	ehuneko 90

4.4. Eskaera guztiak barematuko dira, eta lortutako puntuen taularen arabera dagokien ehunekoa emango zaie.

Onuradun bakoitzeko gehieneko zenbatekoa 2.500,00 eurokoa da.

Proposamen positiboa duten eskaeren guztizko zenbatekoa batuta, aurreko paragrafoan adierazitako muga aplikatu ondoren, laguntza lerro honen deialdia ebazteko erreserbatutako zenbatekoa gainditzen bada, guztizkoaren gaineko defizit ehunekoaren arabera hainbanatuko da.

Proiektu bakoitzak hektarea bateko azalera tratatua izan beharko du gutxienez, eta mahastizaintza ustiategi onargarri bat. Muga hori aplikatzeko, eskatzaileek proiektu baten barruan hitzartutako lurzatiaren azalera osoa zenbatuko da. Tratatutako azalera bererako, lurzatiaren ertzetan feromona dosi handiagoa diruz lagundu ahal izango da, gehienez ere ehuneko 10eko gehikuntzarekin. Dosiak eta difusoreen/aerosolaren presentzia egiaztatzeko, mahastizaintzako azalera global babestua eta egindako benetako gastua hartuko dira kontuan.

5. artikulua. Eskaeren edukia eta informazioa

5.1. Urtero, dagokion laguntza deialdia onartuko da, eta bertan jasoko dira eskaerak aurkezteko epea, aurrekontu partida eta deialdia ebazteko gordeko den kreditua.

5.2. Eskaera kopurua: eskatzaile batek, lurzati desberdinekin, proiektu batean baino gehiagotan parte har dezake, horien kokapenaren arabera. Hala egitekotan, eskaera bana egin beharko du proiektuko.

5.3. Banakako eskaeren edukia eta aurkeztu beharreko agiriak:

5.3.1. Eskaera behar bezala beteta eta sinatuta.

5.3.2. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko informazioa eta dokumentazioa:

- Administrazioak egiaztapena egiteko baimenik ematen ez bada: zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela ziurtatzen duen agiria Nortasun juridikorik gabeko entitateak bada, sozietatearen eta haren kideen ziurtagiriak.

- Eskatzailea ez den beste pertsona batzuek aurrez aurre aurkezteko: eskatzailearen izenean laguntza aurkezteko baimena, eskatzailearen NAN/IFZren kopiarekin.

- Eskatzaile bakoitzak projektuan sartutako lurzatiaren zerrenda eta erabilitako produktuaren izena. Horretarako, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren Produktu eta Material Fitosanitarioen Erregistro Ofizialean baimenduta eta inskribatuta egon beharko du. Kalkulua egiteko kontuan har daitekeen gehieneko azalera mahastien erregistroan lurzati bakoitzerako inskribatutakoa izango da. Horri buruz ezer zehazten ez bada, fabrikatzaileak gomendatutako aplikazio dosia hartuko da kontuan.

- Proiektuaren izena.

- Proiektu bakoitzeko eskatutako zenbatekoa.

- Gastuaren fakturak eta egiaztagiriak, 10.2 puntuan zehaztutakoaren arabera. Fakturak beste proiektu batzuetan aurkeztutako lurzatiaren edo proiektutik kanpo dauden lurzatiaren egindako gastua barne hartzen badu, memorian zehaztu beharko da.

- Ihinzatze tratamenduen kasuan, aplikazioen oharrak jasotzen dituen landa koadernoak (data, tratatutako azalera eta dosia).

- Onuradunak hirugarren batzuei tratamendua aplikatzen badie, tratamendua hirugarrenei aplikatzen dietenen koadernoak.

5.4. 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arabera, Arabako Foru Aldundiak edozein administrazio egindako dokumentuak kontsultatu edo eskatuko ditu, baldin eta eskatzailea eskaeran dagokion aukera markatuta aurka ez badago. Baimena eman ezean, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du eskatzaileak.

5.5. Eskaera aurkeztuz gero, eskatzaileak oinarri arautzaile hauetan ezarritako betebeharrak eta konpromisoak onartzen ditu.

6. artikulua. Izapidetzea

Dirulaguntzen zenbatekoak izapidetu eta kalkulatzeko, kontuan hartuko da kostuen modera-zioa, fakturak eta ordainketa agiriak oinarri hartuz egiten baita laguntzaren ordainketa.

Bakarrik epearen barne aurkeztutako eskaerak kontuan hartuko dira, eta gainera, oinarri hauetan zehaztutako forman laguntza eskatzeko beharrezko dokumentazioa izan beharko dute.

7. artikulua. Kide anitzeko balioespen organoa

Honako hauek edo haiek eskuordetutako pertsonak osatuko dute kide anitzeko balioespen organoa:

- Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuaren burua.
- Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuari atxikitako pertsona bat.
- Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua.

Foru dekretu honetan ezartzen ez diren kasuei eta inguruabarrei dagokienez, kide anitzeko balioespen organoak bidezkotzat jotzen dituen irizpideak aplikatu ahalko ditu modu arrazoituari.

8. artikulua. Kontrolak

8.1. Onuradunek foru dekretu honetan eta beronen garapen arauetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, Nekazaritza Sailak kasuan kasuko administrazio kontrolak eta bertatik bertarako kontrolak egingo ditu.

8.2. Onuradunak Arabako Foru Aldundiak bere ustategira agintzen dituen ikuskapen bisita guztiak egiteko baimena eman behar du, eta dagokion laguntzari buruz eskatzen zaion informazioa eman behar du.

8.3. Baldintza horiek ez betetzeak eta, eskatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, lurzatiaren teknika aplikatu dela bertatik bertarako kontrolekin egiaztatu ezin izateak laguntza baliatzeko eskubidea galtzea ekarriko du, baita dagoeneko jasotako zenbatekoak eta legezko interesak itzultzea ere, indarrean dagoen araudiaren arabera bidezkoak diren gainerako ekintzei kalterik egin gabe.

9. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

9.1. Kide anitzeko balioespen organoak proposatuta, espedienteak kasuan kasuko foru organoak ebartziko ditu, indarrean dagoen araudian oinarrituta. Ebazpenak administrazio bideari amaiera emango dio, eta beronen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkeztu dakioke organo berari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

9.2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 21. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, gehienez sei hilabeteko epea izango da prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Epe hori igarotakoan esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi ez baldin bada, administrazioaren isiltasuna ezestekoa izan dela ulertuko da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 23.5. artikuluari jarraituz.

9.3. Laguntzak emateko eta ordaintzeko ebazpenak emango dira, eta haietan laguntzaren zenbatekoa ezarriko da eskaera bakoitzerako. Ebazpenean gutxitzeren bat egonez gero (azkenean baliozkotutako azalera hitzartutakoa baino txikiagoa da), laguntza kalkulatzeko, azalera-
ren murrizketa 11. artikuluan azaldutakoaren arabera kalkulatu da. Ebazpena ezezkota izanez gero, haren arrazoiak zehaztuko da. Bi kasuetan, 2. artikuluan jasotako baldintza orokorrak ez

betetzeagatik bada, eta laguntzaren gainerako baldintzak betetzen badira, ebazpen horrek ez du eraginik izango proiektuaren baremazio osoaren emaitzan. Aitzitik, arrazoia 3., 5. edo 8. artikuluetan jasotako konpromiso eta alderdi teknikoak ez betetzea bada, edo gastua edo teknikaren aplikazioa egiaztatu ezin bada, proiektu horren onuradunei egiten zaizkien gainerako ordainketak baremazio berriaren eraginpean geratuko dira (baremazio hori azalera baldintzak aldatu ondoren lortzen da), eta bidegabeki jasotako zenbatekoak itzultzeko eskatu ahal izango da.

9.4. Laguntzaren ebazpena banan-banan jakinaraziko da eta aurreko atalean adierazitako informazioa emango da jakinarazpenean.

10. artikulua. Laguntzak ordaintzea

10.1. Laguntzak eman eta berehala ordainduko dira. Proiekturako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 4.4 artikuluan adierazitako ehunekoa izango da, tratamendua emateko erabilitako produktuen kostuarena. Kopuruak banan-banan ordainduko zaizkie aurkeztutako elkarlaneko proiektuko eskatzaileei. Fakturak deialdiaren urtean sortutako gastuenak izango dira.

10.2. Laguntza ordaintzeko, ezinbestekoa izango da hauek aurkeztu izana:

— Eskatera behar bezala beteta.

— Erantsitako dokumentazioa, 5.3 artikuluan deskribatutakoaren arabera. Egindako gastuak justifikatzeko, jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatutako aurkeztutako dira, onuradunak ordaindu dituela egiaztatzen dutenak. Fakturak eskaeraren urtean sortutako gastuenak izango dira, gehienez ere, eskaerak aurkezteko epea amaitu artekoak. Ordainketa egiaztatzeko, dago-kion banku transferentziaren agiria aurkeztuko da, edo merkataritzan froga balio bera duen beste agiri baten bidez. Nolanahi ere, 1.000,00 euroko gastuak edo hortik gorakoak banku transferentziaren edo beste titulu baliokideren baten bidez frogatu behar dira, iruzurraren kontrako prebentzio ekintzen eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzen uztailaren 9ko 11/2021 Legean xedatutakoaren arabera. Banku elektroniko baten agiriak izatekotan, agiri horiek banku entitateak zigilatuta etorri beharko dira.

11. artikulua. Zehapenak eta gutxitzeak

Administrazioko edo tokian tokiko kontrolen ondorioz erabakitzen bada benetan tratatutako azalera hitzartutakoa baino txikiagoa dela, alde hori kontuan hartuko da eta bien arteko aldearen ehunekoaren arabera murrizketak aplikatuko dira:

— Ehuneko 20ko edo hortik beherako aldea: benetan tratatutako azaleraren arabera ordainketa.

— Ehuneko 20tik gorako aldea, baina ehuneko 50ekoa edo txikiagoa, laguntza kalkulatzeko oinarri gisa erabiliko den azalera tratamendua jaso duen azalera izango da, egiaztatutako aldearen bikoitza kenduta.

— Ehuneko 50etik gorako aldea: laguntza ukatuko da.

12. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Foru dekretu honetan araututako laguntzen onuradunek betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

12.1. Memorian ezarritako helburuak betetzea, proiektua gauzatzea eta dirulaguntzen emakida oinarritzen den jarduerak egitea agindutako moduan eta epeetan.

12.2. Gordeta edukitzea jasotako laguntzak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak, agiri elektronikoak barne, egiaztatutako eta kontrolatuak izan baitaitezke.

12.3. Emandako laguntza onartzea. Laguntza eman zaiela dioen jakinarazpena jasotzen duten egunetik aurrera, 10 eguneko epean laguntzari uko egiten ez badiote berariaz eta idatziz, onartu egin dutela ulertuko da.

12.4. Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailari eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari edo haien izenean eginkizunak betetzen dituen edozein organismo edo zerbitzu publiko nahiz pribaturi helaraztea foru dekretu honen babesean emandako dirulaguntzari buruz haiek beren betekizunak egikaritzuz eskatutako informazioa, eta, halaber, erakunde horiek edo finantza kontroleko erakundeek egin beharreko egiaztapenak onartzea.

13. artikulua. Ebazpenaren aldaketa, ez-betetzeak eta itzulketa

13.1. Dirulaguntzak esleitzeko eta ordaintzeko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketaren bat eragiten bada –betiere dirulaguntzaren helburua bete dela aditurik–, eta, hala balegokio, hauekin batera beste dirulaguntzaren bat eskuratu bada eta diruz lagundu daitekeen zenbatekoaren gehieneko muga gainditzen bada, gerta daiteke dirulaguntzak esleitzeko ebazpena alda dadin eragitea. Horretarako, orde, organo kudeatzaile eskudunak dagokion aldaketa ebazpena emango du, eta, bertan, esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoak doitu egingo dira.

13.2. Onuradunek betetzen ez badituzte hartutako konpromisoak edota foru dekretu honetan eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak eta xedea, edo laguntza eskuratzen badute horretarako bete behar diren baldintzak bete gabe, galdu egingo dute laguntza jasotzeko eskubidea, eta dagoeneko diru kopururen bat jaso badute, Arabako Foru Ogasunari itzuli beharko diote, aplikatu beharreko legezko interesak gehituta. Horrek guztiak ez ditu eragozten Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan xedatutakoaren arabera bidezko diren egintzak.

13.3. Zenbateko horiek zuzenbide publikoko diru sarreratzat joko dira, legez dagozkion on-dorioetarako.

13.4. Nekazaritza Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez erabakiko da dirulaguntza osorik edo haren zati bat itzuli behar den, ikuskapen edo kontrol txostenari eta itzultzeko edo gutxitzeko proposamenari atxikiz, onuradunari entzun ondoren.

13.5. Dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan aurreikusitako arau haustengatik zehapen prozedura abiarazi ahalko da.

14. artikulua. Nahitako egindako ez-betetzeak

Nahita egindako ez betetzatzat hartuko dira onuradunak laguntza bat eskuratzeko beharrezko baldintzak artifizialki sortu dituela agerian jartzen dutenak, betiere neurriaren helburuen kontrako abantaila lortze aldera. Halakoetan, onuraduna baztertuta geratuko da bere eskubidez egokituko litzaiokeen laguntzatik, eta jasotako zenbatekoak gehi dagozkien interesak itzuli beharko ditu, 10. artikuluan ezarritakoa aplikatzeaz gainera.

15. artikulua. Araubide juridikoa

Foru dekretu honetan ezarritako laguntzen onuradunek Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrearen Araudian ezarrita dagoena bete behar dute, bai eta Europako, estatuko eta autonomia erkidegoko gainerako xedapen aplikagarriak ere.

16. artikulua. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarka nahiz beste administrazio publiko batzuek edo estatuko zein nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako laguntza edo dirulaguntzekin batera, ezin izango da, inola ere, onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

17. artikulua. Laguntzen finantzaketa

Foru dekretu honetan ezarritako laguntzetara bideratzen diren baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu kredituetatik aterako dira, eta estatu mailako laguntzatzat joko dira.